

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARGOMAIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren kontribuzio errola, eta borondatezko epean ordaintzeko jartzea 2020ko lehenengo sei hilekoko ordainagiriak

Argomaizen, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2020ko lehenengo sei hilekoko) ordaindu behar dutenen errola egin delarik, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun balioduneguz jendaurrean egongo da errola hori, interesa dutenek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Argomaizko (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Era berean, ediktu honen bidez errolako likidazioak jakinarazten dira kolektiboki, bat etorritik Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendaurrean jarriko diren errolatan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Errekurtsoa aldizka mugaeguneratzen den eta taldeka jakinarazi behar den zor baten ingurukoa bada, ordainketa egiteko borondatezko aldia aurkeztu ahal izango da, edo aldi hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2021eko otsailaren 11n hasi eta martxoaren 11n bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2021eko martxoaren 11n kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalnet bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Argomaizko Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Argomaiz, 2021eko urtarrilaren 8a

Lehendakaria

ROSA MARÍA SOLETO GARCÍA